

**KRISIAREN AURREAN,  
EUSKAL HERRIAK ALDAKETA SOZIALA**



**HERRIA** *abian!*

Aldaketa soziala • Cambio social • Changement social

## **AURKIBIDEA**

### **1.- SARRERA**

### **2.- Zer da HERRIAabian!**

### **3.- EGOERAREN DIAGNOSTIKOA**

## **SARRERA**

Esku artean duzun testu hau Euskal Herriko egoera sozio-ekonomikora hurbiltzeko tresna bat da. 2009ko maiatz eta ekainean krisiaren gainean egindako prozesu parte-hartzaile baten ondorioa da berau. 2009ko ekainaren 13an burututako Jardunaldietan, HERRIAabian! aldaketa sozialaren aldeko plataforma osatzen dugun pertsonok, arloek eta lan taldeek diagnostiko hau adostu genuen.

Diagnostiko hau orri gutxitan laburbiltzen saiatu gara eta, horregatik, hainbat puntu agertu gabe geratu zaizkigu. Honetaz gain, Euskal Herri osorako datuak lortzen oso zaila da; datu hauek existitzen ez direlako edo lurraldeen arteko koherentziari kez daukatelako. Izan ere, testuak hutsuneak izanda ere, Plataformak adierazitako norabidea egiteko baliagarria da.

Dokumentu honen helburua ez da bere baitan bukatzen. Aitzitik, egungo eredu ekonomikoak prekarizatutako arloak iratzartzeko eta aberasteko tresna bat da. Testua lanabes bezala erabili behar dugu egungo eredu sozio-ekonomikoan aldaketa sakonen aldeko indarrak metatzeko eta Euskal Herriak behar duen aldaketa honi tresnak ekartzeko. Kapitalismo globalizatuari aurre egiteko modu egokiena, egungo eredu ekonomikoari Euskal Herriko alternatiba bat ematea dela pentsatzen dugu eta. Egunez egun eta gure ahaleginez herri hau aurrera ateratzen dugunok bildu behar dugu eztabaidatzeko, antolatze eta zer ekoiztu nahi dugun, nola ekoiztu nahi dugun erabakitzeko posibilitatea borrokatze... finean, gure burujabetasun ekonomikoa konkistatzeko.

Testua eta plataformaren helburuak ulertzen laguntzeko, diagnostikoari atal bat aurretik gehitu diogu, non HERRIAabian! zer den aurkezten dugun.

Euskal Herrian, 2009ko ekainaren 13a

## Zer da HERRIAabian!

**Guk: langileok, emakumeok, gazteok, nekazari eta arrantzaleok, ezgaitasunak ditugun pertsonok, langabeok, pentsiodunok, migratzaileok, ekologistok, garraiolari autonomoak, ikasleok... Uko egiten diogu espekulatzailerik euren diru-goseaz sortu duten krisia ordaintzeari. Iragartzen ari diren “kapitalismoaren birfundazio” horren aurrean ez gara besoak gurutzaturik geratuko, aitzitik, kapitalismoarekiko eredu ekonomiko eta sozial alternatiboa eraiki nahi dugu. Eta Planetak nahiz Euskal Herriak behar duten aldaketa sozialaren alde mobilizatu egingo gara.**

Euskal Herriko herri sektoreok (langileak, langabeak, pentsiodunak, gazteak, emakumeak, etorkinak, nekazariak e.a.) “krisia” delakoaren aitzakian pairatzen ari garen erasoaldi atzerakoari aurre egiteko, aldaketa sozialaren alde sortu dugun herri plataforma da HERRIAabian!

### Osaketa

Izen eta gorputz propioa duen Plataforma batez hitz egiten ari gara. Euskal Herriko ezkerak erantzun bateratu bat eman behar duela pentsatzen duen orok bere lekua dauka plataforma honetan. Bere osaera:

Plataforma honek izen eta izan propioa ditu. Euskal Herriko ezkerak erantzun orokorra eman behar duela pentsatzen duten orok badute lekurik plataforma honetan. Hala zehazten da:

- ✓ Alde batetik, hainbat eragile sindikal eta sozialen konpromisoan eta parte hartzean oinarritzen da.
- ✓ Beste alde batetik, norbanakoen ekarpen eta parte hartzea ere ahalbidetzen du marko lokaletan.

HERRIAabian! Otsailaren 14an jaio zen Bilbon. Nazional mailan biltzen den lan talde bat dago eta Plataforma maila lokalean sortzen ari da Iruñea, Bilbo, Gasteiz, Donostia eta beste eskualderen batean. Maiatzak 9an ospatu genuen Lehenengo Batzar Nazionala eta bertan eztabaidatu eta zehaztu genuen etorkizunera begira Plataformak hartzen duen antolakuntza eredu. Antolakuntza eredu hori hurrengo da:

Herri Plataforman parte hartuko duen **eragile bakoitzak bere ildo eta dinamika propioak** izango ditu eta ez da planteatzen horiek ordezkatzera. HERRIAabian! ez ditu sektore eta eragile ezberdinen dinamikak eta diskurtsoak ordezkatu behar. Are gehiago, uste dugu soilik lokal mailako eragileen dinamikak sostengatu dezaketela HERRIAabian! Zentzu honetan, eta bizi garen momentuan, garrantzia hartzen duena **herritarrek antolatzearena** da. Bakoitzak bere esparruan, bere sektorean, gusturago dagoen eragilean dinamika erreala sortuz eta bultzatuz. Bakoitzak bere tokitik eredu ekonomiko honen aldaketa sakonaren beharra eta horretarako herri honek behar dituen tresnen aldarrikapena bultzatu behar ditu. Hortaz, HERRIAabian! herri eta eskualde guztietan sortzen ez gara tematu behar. Momentu honetan garrantzitsuena herri eta eskualdeetan dinamika erreala sortzea litzateke. Ondoren, dinamika horiek aurrera ateratzen duten eragileak HERRIAabian!eko dinamikak bere gain hartu dezakete, plataforma bera sortuz edo unean une bere dinاميكي atxikiz eta gorpuztuz. HERRIAabian! dinamika, eragile eta sektore ezberdin horiei marko bat eskaini behar die indar metaketarako. Hasiera batean manifestu baten inguruan metatu izan ditugu indarrak, bakoitzaren ezaugarrietatik haratago, orokortasunari erantzun bat emateko. Bigarrenik, zer gertatzen zaigun eta aldaketa behar dugula ondorioztatzeko, diagnostiko bat adostu nahi dugu guztion artean. Eta hirugarrenik, Munduko komunitatearen barruan herri honetarako herritar alternatiba bat osatu nahi dugu.

Helburu hauetarako, uste dugu dinamika partehartzaile eta zabal bati egokituko zaion antolakuntza eredu behar dugula. Kontutan izan behar dugu dinamika pausatua baina eraginkorra izan behar duela eta ematen diren urratsak ondo finkatu behar direla. Zentzu honetan, HERRIAabian!en Asanblada goreneko erabakitze gunea da.

Erabaki horiek martxan jartzeko lan talde bat egongo da. Uste dugu antolakuntza eredu hau nazional mailan zein lokal mailan baliagarria dela eta zehaztu dugun helburua erdiesteko ezinbestekoa den partehartzea eta gutxieneko antolakuntza maila bermatzen dituela.

## Iraupena eta faseak

Plataforma honek **epe erdiko ibilbidea** izango luke, alegia, une honetan bizitzen ari garen fase sozio ekonomikoan sakoneko aldaketaren alde eragiteko asmoz. Ez da planteatzen, beraz, “betirako” eragile berri bat sortzea, baina ezta hilabete baterako kanpaina soila egitea ere. Ikasturte pare baterako behintzat badugula pentsatzekoa da, baina edozein kasutan ere plataforman biltzen garen eragileok erabakiko dugu, unean uneko egoeraren azterketaren arabera, zer nolako urratsak eman. Bi fase aurreikusten ditugu.

- ✓ Lehenengo fasea: Indar metaketarena herri honek behar duen aldaketaren inguruan.
- ✓ Bigarren fase bat. Alternatiba zehazten joatea.

## Helburuak

Herri Plataformak honako helburu hauek betetzen laguntzeko tresna izan behar du

- ✓ Eredu kapitalista auzitan jarri eta bestelako Euskal Herria baten alde egin. Guk ez dugu nahi kapitalismoa birfundatzerik, ereduaren aldaketa baizik.
- ✓ Aldaketa hori erabakitzeko eta gauzatzeko Euskal Herriak behar dituen tresnak aldarrikatu.
- ✓ Egungo eredu ekonomikoak langileontzat dakartzan kalteak eztabaida sozial eta politikoaren lehen planoan kokatu..
- ✓ Aldaketa sozial horren funtsezko elementuak identifikatu, gizarteratu eta horren aldeko indar metaketa bultzatzea, Euskal Herrirako herri alternatiba osatuz.
- ✓ Krisiaren aitzakian patronalak nahiz Gobernuak hartzen ari diren neurriak salatzea. *Euren krisia eurek ordaindu dezatela!*
- ✓ Egungo egoeraren arduradunak argi eta garbi identifikatu eta interpelatzea: patronala, Gobernuak, banketxeak, espekulatzailak...
- ✓ Aurreko guztia bideratzeko, herri sektoreen antolaketa eta mobilizaziorako esparruak irekitzea.

## Edukia

Helburua ez da egoeraren azterketa eta alternatiba estrategikoa azken muturreraino adostea, eragile sindikal eta sozial bakoitzak bere ikuspegi propioa baitu hainbat gaien inguruan. Kontua litzateke **oinarrizko adostasun bat lortzea ORAIN ETA HEMEN**, Euskal Herrian, bizitzen ari garen egoera sozio-ekonomikoari herri erantzun bateratua emateko. Ildo honetan, Herri Plataformaren diskurtsoa hiru gako hauen arabera antolatuko litzateke:

1. **Egoeraren inguruko oinarrizko irakurketa.**
2. **Herri erantzunaren beharra.**
3. **Eredu kapitalistarekiko Herri Alternatiba.** Berrito diogu, ez genuke planteatuko eredu berri baten definizio estrategikoa, baizik eta bestelako eredu baterako oinarrizko aldarrikapen taula.

## Bultzatuko lituzkeen ekimenak

Plataformak ekimen propioak antolatuko lituzke, aurretik aipatutako helburuen eta edukien ildoan. Funtsean, hiru motako ekimenak izango liratezke:

**Lan ideologikoa:** prentsa, propaganda lana, hitzaldiak, jardunaldiak

**Herri mobilizazio eta ekimen puntualak:** tokian tokikoak nahiz nazio mailakoak eta esanguratsuak izango direnak: banketxe, instituzio eta abarrak interpelatzeko.

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

### 1.- Errealitatearen inguruko edozein irakurketa jarrera zehatz bat duen irakurketa da

1. Azken aldian nekez aurkitzen dugu krisiaren inguruan hitz egin ez duen edo hitz egiten ari ez den norbait. Ezkertiarra, eskumatarra, hangoa, hemengoa. Krisiak gure bizitzak eta buruak inbaditzen ditu. Edozein iruzkin, oso azalekoa izan arren, ostea dakar lagun: “krisia da”, “krisi demonioa”, “krisian gaudenez”... eta badirudi, galiarrei bezala, zerua buru gainera eroriko zaigula une batetik bestera. Baina, zertaz ari gara? Edo hobe esan, denok gauza beraz ari gara krisiaz hitz egiten dugunean?
2. Errealitatearen edozein irakurketa (soziologiko, ekonomiko, kultural) beha dauden begien jarreragatik baldintzatuta dago, eta beraz, ez dago irakurketa neutrorik. Hala, krisiaz berba egiten dugunean, ez da gauza bera Euskal Herri hitz egitea ala Estatu espainiar, frantses edo alemaniarretik egitea, eta ez da gauza bera langile klasetik, politikagintzatik, finantza klasetik edota patronaletik hitz egitea. Sektore bakoitzak jarrera sozial bat du eta beronek errealitateari aurre egiteko perspektiba determinatzen du. Azken buruan, koska ez da ahalik eta analisirik objektiboena egitea, baizik gure jarrera eta klasearekiko zintzoena den analisisa egitea.
3. Zentzu honetan krisia jarrera jakin batetik analizatzea derrigortzat jotzen dugu; hain zuzen, EHko langile klasetik, langile klase anitz moduan ulertuta, non talde ezberdinak integratzen diren: emakumeak, gazteak, emigranteak... Bi arrazoi dugu hala pentsatzeko: bata, gehiengoaren klasea ez ezik, aldaketa bermatzen duen bakarra delako; eta bi, EHk herri gisa, beste toki batzuekiko osagai bereizleak dituelako, eta atxikitako zailtasun bat duelako, ez baitauka egoera hau kudeatzeko tresna propiorik kanpo elementuen esku hartzerik gabe.
4. Aipatu beharra dugu, gainera, azken gai honek zailtasun bat sortzen duela. Gaur egun, ezinezkoa zaigu krisiak EHN dituen ondorio errealean analisisa egitea arrazoi simple bategatik: Herri honek ez dauzkalako berau egiteko aski tresnarik. Ez dago EHri buruzko daturik eta bere herrialde ezberdinen inguruko datuek ez daukate egitura koherente bat. Horrela, ezinbestekoa zaigu azpimarratzea errealitate horretara hurbildu baino ezingo garela, eta honek badu bere balioa, baina aldi berean erroka bat mahai gaineratzen digu: gure errealitate propioa ezagutzeko beharrezko tresnak sortzea.
5. Errealitate honek bestalde, hausnarketarako lehenengo gakoa dakarkigu. Baliteke krisi hau ez izatea soilik krisialdi ekonomikoa. Adierazle ezberdinek iradokitzen dute haratago joan eta sozio-politikoan ere ezarri daitekeen krisialdia dela.
  - a. EH Europako Batasunean Estaturik gabeko nazioaren adibide, ordezkarritasun-eza duten erakundeei dagokionez, baina gauza bera esan genezakeen Europar Batasuneko Itun konstituzionalaren bidez politikoki ehuntzeari buruz. Parlamentuaren ohiko sistemaren krisia aspaldian hasia dago eta leku batzuetan ez du gehiagorik ematen. Erabakiak ezartzen diren lekuetatik milaka kilometroetara geratu dira merkatari eta finantza egitura makroekonomiakoen eskuetan eta gero eta urrunago daude herriaren gogotik. Honek ez du esan nahi kapitalismoak arazo honi konponbiderik ezin topa diezaiokeenik, zeren honek bere bizi iraupen abila baitezake edozein koiunturaren gainetik.
  - b. Krisia keta berau sortu duen sistema ekonomikoa kez dute soilik eragiten arlo ekonomikoan. Herrietan eta euren identitate ezaugarrietan ere badute eraginik. Euskal Herriari dagokionez, hizkuntza bat dugu, zein desagertzera kondenatzen ari diren, hizkuntza globalizazioa dela medio. Beraz, herria martxan jarri nahi badugu, herri identitatearen ikuspuntua ezarri behar izango dugu.
6. Kanpoko esku sartzerik gabeko analisisa posiblea da soilik, baldin eta errealitatea eta gure inguruko lagunek eta planetako beste aldekoek euren egoeraz egin duten diagnostikoak

aintzat hartzen baditugu. Egia da EH-n krisia dagoela beste talde batzuek ere krisian daudelako. Era berean egia da gure garapen eredutik abiatuta, EH-k gainontzeko herriei bere krisi partea ere esportatu egin diela. Euskal Herriak (ama lurra) bere onera ekar dezakeen baino hiruzpalau aldiz gehiago kontsumitzen ari garela eta humanitatea (ezberdintasun hilkor eta justizi gabekeriaren bidez) lurrak bere onera ekar dezakeen baino hainbat aldiz gehiago kontsumitzen ari garela aintzat hartu behar dugu. Errealitate hau barneratu gabe, EH-n egungo ereduari eman nahi izango diogun alternatiba hutsala eta ezinezkoa izango da. Horrezaz gain, euskal herriaren desagerpena dakar, gainontzeko herriei odol ustiapen hobe eta handiagoa egiteko estrategia eraginkorrakoak egiten ez baditugu eta geure etorkizuneko belaunaldiek bizi irauteko behar izango dituzten aberastasunak xahutzen ez baditugu.

7. Hain txarra litzateke, hala aipatutako muga hauek aintzat ez hartzea nola gainontzeko hurbil zein urrueneko herriekiko elkarlanak dakartzan abantailak aintzat ez hartzea. Diagnostiko parte hartzailea zein konponbide eta alternatibak elkarrekin ematea ez dira EH-ra mugatu behar. Nazioen arteko elkartasunik gabe ez dago internazionalismorik. Hauxe da gure ezinbesteko abantaila botere faktiko kapitalistek inposatu nahi diguten konponbideari alternatiba bideragarri bat egin ahal izateko. Izan ere, errealitatea eta gainontzeko proposamenak ezagutuz soilik ezagutuko dugu geure errealitatea eta alternatiba zuzenak egingo ditugu.
8. Sistema kapitalistaren jendartearen kontrako krimenak salatu ezean, jendeak sistema ona dela pentsatuko du eta, ondorioz, iraungo du. Jendarteari sistema hilkor honen emaitzak (jendarte mailan, ekologia mailan, gudak...) erakutsi behar zaizkio. Inperialismo guztien salaketa iraunkorra bermatu behar dugu, bai EH-koa zein beste edozein estaturen kontrakoa, zeren inperialismo guztiek Estatu zapaltzaile batek beste herri bat menderatzen duela adierazten baitute; inperialismo horren bidez, Estatu zapaltzailearen herriak jasotzen dituen onurak ahaztu gabe.

## **2.- Baina, ez al geunden ba langileak jada krisian?**

9. Agian, makina bat urte dela gero eta baldintza prekarioagoen pean lanean ari diren pertsona askorentzat, iraupen laburreko kontratuekin, euren lan bizitzaren atalen arteko konexiorik gabe eta pobrezia atariaren azpitik kokatzen den soldata batekin, etxebizitza duin bat eskuratzeko aukera barik; noski, pertsona hauentzat orain krisiaz hitz egitea hutsala da. Langile klaseak denbora luzea darama krisian, edo behintzat, egoera kritikoan arrazoi sinple bat dela medio: sistema bera da jendartearen sektore zabalak prekarizatu behar dituen beste batzuk, gutxieneoak, lehenengoek ekoiztutako aberastasuna pilatu ahal izateko. Izan ere, gizateriaren % 15ak, BPG-aren arabera neurtutako aberastasunaren %71a kontrolatzen du. Baina, urrun joan gabe, EHn, biztanleriaren %21ak aitortutako errenten erdiak eskuratzen ditu, eta bien bitartean %62ak beste erdia eskuratzen du. Eta gainontzeko %17ak? Hauek, sinpleki, ez dute ezer eskuratzen.
10. Kapitalismo patriarkalak, bere sorkuntzatik, oinarritzko ideia bat betetzen du: ahalik eta etekinik handiena eskuratzea ahalik eta denbora tarte laburrenean zapalkuntzaren bitartez, dela langile klasearena, emakumeena, dela herri zein naturarena. Kapitalismo patriarkala deitzen diogu lanaren sexu banaketa bere ezinbesteko ezaugarria da eta. Eta hemendik aurrera logika erraza da: zenbat eta zapalkuntza gehiago (soldata txikiagoak ordainduz, edo ordaindu gabe emakumeen kasuan, natura espoliatuz...), orduan eta mozkin handiagoa. Bere sinpletasunean harrigarria.
11. Logika hau sistema bihur dadin, ezinbestekoa da instituzionalizatzea, alegia, gorputz legal, juridiko, politikoa edota kulturalak sortzea funtzionamendua modu naturalean barneratua izan dadin. Azken bi hamarkadetan prozesu hau aitzineratua izan da Europan Maastricht, Lisboa edo Nizako Itunen bidez, gerora Estatu bakoitzean aplikatu beharreko politikei marko komuna eskainiz. EHri dagokionean, Estatu frantses eta espainiarra zein administrazio autonomiko eta foralak izan dira ildo hauek kudeatzearen arduradunak.

12. Horrela, prozesu hauen bitartez analista batzuek “jendarte duala”<sup>1</sup> deitu dutena sortzen ari da. Hau da, egoera bat non, gero eta gutxiagok gehiago daukaten eta gero eta sektore gehiagok eskubide jakin batzuen (sozial, ekonomiko, politiko) murrizketa nabarmena duten. Eta nahiz eta joera hauen eraginak ukigarriak diren lagun gehienentzat, sektore batzuek oraindik modu latzagoan pairatzen dituzte: emakumeak, gazteria, etorkinak, pertsona adinduak, pentsionistak eta sarrera duinik gabeko arloak dira gizarte honetako ahulenak<sup>2</sup>.
13. Bestalde, prozesu honetan lan arloko prekarietateak berebiziko garrantzia badu ere, badira ere beste osagai batzuk ondorio larri bat azalerazten digutenak: gure bizi-baldintzak narriatzen dituen prekarizazio soziala sortzen duen prozesua dugu begi-bistan.
- **Lan arloari dagokionean:** laz sinatutako kontratuen %90a baino gehiago aldi baterakoak ziren. Eta urtero 100 lagunetik gora hiltzen da bere lanpostuan.
  - **Errentei Dagokionean:** Herri honetan 1000 euro baino gutxiago jasotzen dute 500.000 lagunek. SMIA, pentsio guztiak eta Oinarrizko Errenta pobrezia-aren atariaren azpitik daude.
  - **Etxebizitzari dagokionean:** Prezio ertaineko etxebizitza bat ordaintzeko, finantza ahalegina 100 urtetik gora dihoakigu.
  - **Zerbitzu publikoei dagokionean:** Elektrizitatea, ura, telefonoa, garraioa edota zaborren bilketa bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera dira.
  - **Ingurugiroari dagokionean:** Gure kontsumo eta ekoizpen mailarekin, beste hiru Euskal Herria erabiltzen ditugu, berez dagoenaz gain.
  - **Aisialdi eta kulturari dagokionean:** Aisialdia kontsumoaren inguruan metatzen da, azalera handien inguruan.
  - **Partehartze Sozial Aktiboari Dagokionean:** oro har galarazi egiten da, ez baitago non jorratu (guneen eskasia), eta bereziki asti faltagatik, lanaldiak gero eta luzeagoak direlako eta emakumeen kasuan, gainera, ia eskusiboki ugaltze lanaz kargu egiten direlako.
  - **Pertsonari dagokionean:** segurtasun eza sustatzen da eta honek sarritan sumisioa dakar. Hauxe ezinbesteko tresna da prekarietate handiagoa onartu eta kontrolatzeko. Hala, norbanakoen erantzunak zabaltzen dira, elkarren arteko gutxiesten den bitartean. Horrezaz gain, norbere buruarekiko frustrazioak handitzen dira eta honek norbere buruarekiko zein elkarrekiko harremanetan dauka eragina. Gako hauek atzerakoi baloreak bermatzea ekar dezake.
14. Gaur egungo eredu ekonomikoaren joera, baita krisiarena ere, aztertzeko orduan ekonomia hirugarren sektorean murgiltzen ari dela aintzat hartu beharreko beste faktore bat. Ekonomiaren traktoreak izan beharreko lehenengo eta bigarren sektoreak uzten dituzte eta gero eta mendekotasun handiagoa dakarren hirugarren sektorea bultzatzen dute. Mendekotasun honek gure herriaren garapen endogenoa eragozten du:
- Lehenengo sektorearen egoera prekarioa agerian dago: baserriaren kultura eta nekazaritza desagertzeko arrisku bizian daude Euskal Herrian. Azken 30 urteetan 80.000 mila lanpostu zuzen<sup>3</sup>

<sup>1</sup> B. Ulrich, N. Jurado, R. Castel...

<sup>2</sup> Egungo eredu ekonomikoak prekarizatutako arlo guztien azterketa zehatza egin behar dela pentsatzen dugu. HERRIAabian!etik arlo hauek bultzatzen ditugu analisi hau egitera eta indarrak pilatuz antolatzen.

<sup>3</sup> Enpleguaz hitz egiten dugunean, lanari dagokion zati bati buruz soilik mintzo gara. Jendarte mailak ezinbestekoak diren baina sistema kapitalistak neurtzen ez duen hainbat betebeharrak erreproduktiboa existitzen dira. Arazoa da erreproduzitzeko lan gehiengo ez dela banatzen eta emakumeek jaso behar dutela.



baino gehiago galdu dira. Gaur egun, baserrian dihardutenen %42k 65 urte baino gehiago dauzka. Lan eta irabazien arteko desorekak eragindako bizi baldintza prekarioek iraupen eza, lan istripuak, ekoizpenaren kantitate zein kalitatearen galera dakartzate; eta ondorioz, elikagaien burujabetzatik urruntzen dute gure herria. Egungo krisiak prezioen jaitsiera eta ekoizpena saltzeko zailtasunak ekarri ditu (adibidez, esnari dagokionez, 2008an %38 jaitsi da).

Arrantzan antzeko gauzak gertatzen dira; azken 20 urteetan itsasotik 100 itsas bazterreko zein itsas zabaleko itsasontzi baino gehiago kendu dituzte Madrilak eta Bruselak antolatutako birmoldaketetan. Hala, 1000 lanpostu zuzen baino gehiago eta zeharkako 4000 lanpostu baino gehiago galdu dira. Itsas guztietako gain ustiapena arrain stock delakoak agortzen ari da, Armadoreek, Akziodunek eta Arrantza patroiek epe laburreko aberastasuna lortu duten bitartean. Euskal Herriko ohiko kala den Bizkaiko Golkoko arrain stock-i begiratzea baino ez dago; kontrolik eta benetako politikarik gabe argi dago ez dagoela etorkizunik, gure elikatzeko ahalmena hain beharrezkoa den eta kostaldeko herri gehienetako bizi iraupen ekonomiko endogenoa den jarduera honi eusteko.

- Bigarren sektorearen egoera ere kezagarria da. Garapen espekulatiboaren ereduaren aldeko erakundearen erronka argiak, orain arte industriak izandako traktore funtsa zalantzan egotea eragin du. Industria publikoa pribatizatzea, dibertsifikatzearen aldeko erronka eskasak eta esku sartzeko tresnen faltak maniobratzeko ahalmenik gabe, iraganari helduta eta etorkizunean eragiteko tresna eraginkorrik gabe uzten gaituzte. Horrez gain, Madrilan eta Parisen sortutako lan birmoldaketek langileen eskubideak hierarkizatu dituzte, prekaritate eta esplotazio maila altuagoi bide eginez. Egungo moteltze fase ekonomikoan hala ulertzen da doan eta egonkorra den lanpostuen galera.
- Ekonomia hirugarren sektorean murgiltzeak gero eta mendekotasun handiagoa dakar. Esportazio eta inportazioen menpekoak izango gara, baita merkatal zentro erraldoien kapitalen menpekoak ere. Ekonomia hirugarren sektorean murgiltzea ez da doakoa eta jendarteari bizkar emanda burutzen da; baina jendarteak berak bere ondorioak jasan beharko dit (lan prekaritate handiagoa, inguruaren, baserrien eta industriaren suntsipena). Administrazio ezberdinetatik zerbitzuen (kapital iturri gisa) aldeko apustua egiten da (turismoa, merkantziak mugitzea, merkatal zentroak...). Euskal Herriko lehenengo sektorearen eta industriaren emaitzen neurriko zerbitzuak behar ditugula ulertzen dugu. Halaxe soilik, espekulazio eta prekaritatek aterako dugu sektore hau.

15. Krisi honek, beraz, sakondu egiten du sistema honen joera orokorra; prekaritate, txirotasuna eta, noski, jendartearen edo gizateriaren atal zabalago batean heriotza sortuz soilik funtziona dezakeen sistemaren joera. Pairatzen dugun krisian ez dago istripurik, ez kasualiterik, eta ez dago eguraldiari loturik; sistemaren beraren arazoa da. Gain produkzio krisia da. Egun munduko klase menderatzaileek areririk ez dutela ikusi dute eta esplotazio maila zabalduz euren etekinak handitzea erabaki dute. Ezer gutxi aldatu da azken 160 urteetan. Denboran atzera eramanez nahi dute langile klasea. Krisi honek, emakumeek "euren etxeko lanera" eta euren sistemaren erreproduktoreak izatera itzultzea ekarriko du. Sexu indarkeriaren hazkundera izango da egoera honen beste ondorio larria, zeren etxe barruko frustrazioak areagotzen baitira eta emakumeek, orokorrean, hori ere jaso behar dute.

### 3.- Ez da bakarra, ez da azkena izango. Nola sortzen da krisi hau

16. Ziurrenik, denok gogoratuko dugu krisi ekonomikodun (eta ondorioz politikodun) uneren bat. Petrolioarena deitutako krisia, 80. hamarkadako industria-birmoldaketa, 90ekoa, gaur egunekoa... Ziurrenik, denon artean hona ekarri gaituzte, izan ere, ez dira izan katebegi galduak, aitzitik, joera berdinean adierazpen ugariak izan baitira.
17. **70. hamarkadan** petrolioaren krisia gertatu zen, eta beronen ondorioz nabarmena industria-birmoldaketa prozesua izan zen, zeinek EHra ondorio dramatikoak ekarri zituen urte batzuk geroago. Petrolioaren garestitzeak zenbait desoreka ekarri bazituen ere, iraultza elektronikoak eragin handia du errentagarritasunaren beherakadan, eta beraz, mozkinetan. Berreskuratzeko helburuarekin, politika ekonomiko berria jaiotzen da, neoliberalismoa, eta hauxe da bere ikurra: merkaturia da ekonomia arautu behar duen bakarria. Ongizate Estatuaren gainbehera hasten da horrela.



18. Prozesu honek zehaztasun handiagoa lortzen du **80tik aurrera**, AEBetatik oinarri liberaletara itzultzea aldarrikatzen da, Estatuaren esku hartzea txikituz eta enpresa klasea ekonomikoki babestuz. Testuinguru honetan Nobel saridun Milton Friedmanek “langabezi tasa naturala”<sup>4</sup> definitzen du. Hemendik aurrera, soldatetan beherapenak aplikatzen dira, eta lan merkatuaren arautze eza, pribatizazioa eta zerbitzu sozialen murrizketa errenkadan datoz. Eredu hau Europar Batasunean eta bere kideetan aplikatzen da 1992ko Maastrichteko Itunetik aurrera. Munduko langabe tasa aintzat harturik, sistema kapitalista ez da bat ere eraginkorra aberastasunak sortzeko, nahiz eta oso eraginkorra izan aberastasunak gero eta esku gutxiagotan biltzeko.
19. **90. hamarkadan** globalizazioaren kontzeptuak planteamendu politiko, ekonomiko eta kultural guztiak bustitzen ditu. Mundua merkatu bakarra da eta bertan, merkantziek libre zirkulatu behar dute, helburu honen bidean multinazionalen menpe dauden monopolioak ahalbidetzen duen erregulazio ezaren aldeko prozesua abian jartzen da. Kapital masa handiak esku gutxitan metatzen hasten dira, eta bitartean tokian tokiko ekonomiak eta enpresa txikiak desagertzen doaz edota hezurdura horretako orno izatera derrigortuak dira. Baina euren interesak krisian sartzen direnean, babes legeak ezartzen dituzte egoera larrian bizi direnen kontrako dumping ekonomiko eta soziala bultzatuz.
20. **2000. urtean** EBko Estatuak sinatutako Lisboako estrategiarekin hazkunde ekonomikoa lehenesten da, ezberdintasun sozialak leuntzeko (aberrastasuaren birbanaketa aipatu gabe) eta sistema publikoaren berrantolaketa eratzen da, funtsak azpiegiturretara desbideratuz eta zerbitzu sozialen pribatizazioaren bidez merkatu berri bat sortuz.

#### 4.- Gaur egungo krisia

21. Prozesu honetan guztian, kapitalaren metaketa handia ematen da, batez ere espekulaziora bideratua. Egungo finantza krisia **2001ean** hasten da ernetzen, “teknología berriak” eta Internetaren “burbuila teknologikoa” lehertu eta gero. Erantzun instituzionala diruaren prezioa jaitea da, eta hemendik aurrera diru hori “adreilu”ra bideratuko da. Finantza arloak negozio lerro berria asmatzen du: Lurzorua erosi, etxebizitzak eraiki eta errealtatea baino dezente gorago dauden hipoteken truke eskaini etxebizitza hauek. Urte hauetan, etxebizitzaren balio erreala bikoiztu egin zen AEBetan eta EHN ia laukoiztu egin zen. Eta zorra eta metaketa gero eta gehiago hazi ziren.
22. Sortutako kapital guztia berriz bideratzen da espekulaziora eta “finantza burbuila” deiturikoa sortzen da, 2007an lehertzen dena egungo “sub-prime” edo hipoteka zaborren krisiarekin. Berau ulertzeko beharrezkoa dugu “Basileako araua” aintzat hartzea, hau da, bankuek diru likidoaren eta emandako kredituen arteko oreka mantendu behar dute. Arau hau hausteko, bankuek beste banku batzuk sortu zituzten, oreka izorratzen zuten hipotekak saldu ahal izateko. Munduan zehar saldu zituzten pentsio edo inbertsio funtsa moduan. Era honetan inork ez zekien zehatz-mehatz zer erosten zuen. Puxika hau AEBetan zulatu zen, bere arlo ekoizlea murrizten doan heinean zorra goraka duen herrialdean hain zuzen ere. Langabeziaren gorakadarekin, hipoteken ordain ezintasunarekin eta etxebizitza prezioaren beherakadarekin, bankak ezin du berreskuratu maileguan utzitakoa eta munduan zehar saldutako inbertsio funtsak balioz husten dira. Eta hortik aurrera, denok dakiguna: likidezia falta, burtsaren erorketa, maileguen etenaldia, salneurrien beherakada, eta abar. Eta honi lotuta langile klasearen baldintzen okerragotzea, zorra, langabezia, zerbitzuen murrizketa...
23. Hemen ematen da aldaketarik esanguratsuenetakoa. Egoera honen aurrean, arlo publikoak esku hartzen du, eta orain arte merkatua bere kasa arautu behar zela defendatzen zutenek, euren etekin galerari aurre egiteko Estatuaren parte hartzea eskatzen dute.

<sup>4</sup> Teoria honen arabera langabezia esanguratsuenaren existentzia merkatuko prozesuen emaitza normala da eta egoera onargarria izan daiteke lansariak arautzeko.

24. Zentzu honetan, nazionalizazioaz, finantza merkatuari egindako susperraldiaz, jendartearekiko erantzukizunaz hitz egin da, areago, espoliazio honen ondorioak arintzeko denok gerrikoa estutzearen beharraz. Finean honek errealitatean adierazi nahi du krisitik onean aterako direnak haiek direla
25. Baina ongi ohartuz gero, patronalaren, bankaren eta klase politikoaren arteko itun bat dagoela argi geratzen da, epe laburrera hiru alorri diru publikoa emanez etekin maila mantenduko duten neurri multzoa diseinatu asmoz: banka (dirua injektatuz), eraikuntza enpresa handiak (azpiegitura erraldoietarako aurrekontuen bidez), eta patronala (Enplegu Erregulazio Espedienteen eta zergen ezabaketaren bidez, esaterako, Jabetzarena). Esku-aldatze bat da, lapurreta bat, argi eta garbi. Izan ere garai batean mozkinak metatu eta pribatizatzen zituzten eta orain galeren externalizazioa eskatzen dute. Finean, kalteak jendarte osoak ordaindu beharko ditu, haiek sekula ez.
26. Epe laburreko helburuez gain, aldi berean “Kapitalismoaren berrosatzea” ahalbidetuko duen estrategia diseinatzeko ari dira. G20aren bilerak, europar gailur handiak... sistema berrosatu, baldintza berrietara egokitu eta etekin tasa mantendu edo handitzeko asmoz beharrezkoak diren doikuntzak garatzeko oinarrien pean antolatzen dira. Euskal Herria, esan gabe doa, ez dago estrategia hauetatik at. Eraikuntza-enpresa handietara diru publikoa desbideratzeko AHTaren eraikuntza dugu adibiderik argiena. Baina etorkizunean iraganekoak zirela uste genuen eszenatokiek in aurki gaitzke, Garoñako zentralaren bizi luzapenak iradokitzen duen energia nuklearrera itzultzea kasu.

## 5.- Ongi da, eta honen aurrean, zer?

27. Agian behin baino gehiagotan galdetu diogu gure buruari nola den posible halako lapurretaren aurrean erantzunik ez ematea. Baliteke erantzun ezberdinak planteatzea: telebista, beldurra, promesak...
  - Langile klasearen eskubideen kontrako eraso gogorrek honen erantzuteko ahalmena murriztu du; izan ere, enbata hauen aurrean sarritan ez dauka defentsarik. Atzerapen eta prekarizazio hauek eskenatoki berri bat sortu dute, non indar korrelazioak langile klasearen kontra jotzen duen. Gaur egun, eta 2009ko maiatzaren 21ean ikusi ahal izan genuen bezala, greba eskubidea ere berez oso mugatua dago.
  - Era berean, Sindikatuak, herri mugimendua, ezkerreko alderdiak, hots, langile klaseak erabilitako ohiko tresnak ez dira euren unerik onena pasatzen ari. Zatiketa, indar banaketa, langile klaseak izandako osaketa aldaketaren aurrean egokitzapen faltaren aurreko erreferentziak... hauek langile klasearen sektore zabaletan ematen den erreferentzialtasun faltaren erantzuleak izan daitezke.
  - Ez dago zalantzarik krisi hau azken urteetako desideologizazio prozesu sendoaren ondorioak begibistakoak direnean ezarri dela. Eztabaida eta formaziorako guneen desagerpena ez ezik (Bologna prozesua dugu adibiderik hoberena); sineskeria zentzugabeen bidez doktrinatzeko moduak trinkotzen dira, baita erlijio batzuen eskutik sinesmen ez zientifiko bidez ere; komunikazio holding handien bidez populazioa kontrolatzeko presioa areagotzen da. Hedabideek presentzia iraunkorra mantentzen dute, sistema kapitalistaren aldeko irmoki kohesionatutako mezuen inguruan, asaldatzeko gogoia lotan uzteko. Etorkizunari, etxea galtzeari beldurra bermatzen da eta finantza eta politika klasean konfiantza eskatzen da, eurek egoera konponduko dutelakoan. Finean, geldotasuna sustatzen da, borrokaren bidez errealitatea aldatzeko ahalmena debaluatzen den bitartean.
28. Ekonomia eta politika eliteek egindako elkarrekin bogan aritu behar dugula diosku, helburua azken urteetako disfuntzioetatik libre izango den kapitalismo “osasuntsua” berreskuratzea balitz bezala. Baina, honek eramango al du langile klasea egoera hobe batera? Interes beretsuak al ditugu? Herria Abianetik ezetz uste dugu. Lehenik eta behin, euren helburua langileok osatzen dugun gehiengoaren lepotik etekina lortzea delako. Bigarrenik, oparoaldietan ez dutelako guk ekoiztutako aberastasuna banatu.
29. Indarrak metatzeko eta ekiteko unea dugu beraz. Klase kontzientzia errekuiperatzeko, sistemari aurre egin ahal izateko ezinbestekoa da formazio kritikoa bultzatzea. Langile klase indartsu eta kontzientziatu batek soilik egungo egoerari buelta eman diezaike. Hortik abiatuta, puntu komun bat bilatuko dugu, non gure lanek bat egingo duten. Puntu honi dagokionez, bi izan daitezke gure lanak

artikulatzeko oinarriak: lehena, aldaketaren beharra; sistema kapitalistari ezetza emateko eta berri bat sortzeko beharra. Bigarrena, egun ez ditugun baina ezinbestekoak diren tresnak sortu behar ditugu, herri honek aldaketa horri ekin ahal diezaion.

30. Hemendik abiatuta, gure geroa nolakoa izatea nahi dugun definitu ahal izango dugu, eta uste dugu hiru ideietan hezurramitu daitekeela: lana (ekoizpena eta ugalketarena) eta aberastasunaren banaketa, ekonomiaren demokratizazioa eta ekosistemaren garapen demokratikorako eredu bat.

Euskal Herrian, 2009ko ekainaren 13a

